Zarauzko Udala
Zk./ Nº 2026/1
Data / Fecha 2026/02/04
Akta / Acta

ZARAUZKO UDALA

2026ko URTARRILAREN 19an UDALBATZARRAK EGINDAKO EZ OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA 01 zk.

Zarauzko udaletxeko batzar-aretoan, 2026ko urtarrilaren 19an, arratsaldeko zazpiretan, Udalbatzarra bildu da, egun eta ordu horietarako aurretik deituta zegoen ez ohiko osoko bilkura egiteko xedez.

Honako zinegotzi hauek bertaratu dira:

Batzarburua Xabier Txurruka Fernandez jn.

Zinegotziak
Garbiñe Oiarbide Iruretagoiena and.
Irune Urbieta Alberdi and.
Jesus Arana Gomez jn.
Iban San Martin Hernandez jn.
Leire Arana Olabarrieta and.
Iker Basurko De Miguel jn.
Gervasio Gabirondo Fernandez jn.
Estibaliz Agirre Uranga and.
Naiara Mendivil Ayerza and.
Ion Arozena Eizagirre jn.
Ainara Landa Argote and.
Ainhize Larramendi Larrarte and.
Mikel Agirre Etxaniz jn.
Jesus Goikoetxea Balentziaga jn
Eider Gurrutxaga Larrañaga and.
Garazi Olaizola Irureta and.
Gloria Vazquez Herranz and.
Inaxio Illarramendi Lizarreta jn.

Ez Etorriak:
Itziar Murua Uria and.
Ander Lucas Aranceta jn. (boto-delegazioa Garazi Olaizola Iruretaren alde)

Idazkaria Amaia Gorrotxategi Zubizarreta and.

Jarduneko Kontu-hartzailea Itziar Kortabarria Garitano and.

Bilkurari hasiera emanda, eguneko aztergaiak aztertu eta eztabaidatu ditu Udalbatzak.

GAI-ZERRENDA

ESKUc2f3b9b5-63fd-4e63-8944-59d4bc9c1d1c

ZARAUZKO UDALA

1.- UDALAREN LURZORU-ONDAREA OSATZEN DUTEN OD AMILLUBI EREMUKO HIGIEZINEN KONPLEXUKO 1. ETA 3. PARTZELAK PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ BESTERENTZEKO LEHIAKETAREN 2025EKO AZAROAREN 27KO ESLEIPEN-ERABAKIA KAUTELAZ ETETEKO ESKAERARI BURUZKO EBAZPENA.

Espedientea: 2025IK200019

http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20260119&punto=1

Idazkariak akordio-zirriborroa irakurri eta gero, proposamena eztabaidatu eta bozkatu dute. Bozketak emaitza hau izan du:

Aldeko botoak:	12	10 EAJ-PNV, 2 PSE-EE
Kontrako botoak:		
Abstentzioak:	8	8 EH Bildu

Ondorioz, Udalbatzarrak adierazitako gehiengoarekin, honakoa erabaki du:

Ebazpena, udalaren lurzoru-ondarea osatzen duten 17.3 OD AMILLUBI eremuko higiezin multzoko 1 eta 3 partzelak prozedura irekiaren bidez besterentzeko lehiaketaren 2025eko azaroaren 27ko adjudikazio-erabakia kautelaz eteteko eskaerari buruzkoa.

Udalbatzak 2025eko azaroaren 27an hartutako erabakiaren bidez, Viuda de Sainz SL, Urbelan empresa constructora SAU eta Promociones Leku Eder SA enpresek osatutako aldi baterako enpresa-elkarteak aurkeztutako eskaintzari adjudikatu zitzaion Amillubiko 17.3 OD antolamendu definituko higiezin multzoko 1 eta 3 partzelak prozedura irekiaren bidez besterentzeko lehiaketa.

Amenabar Etxegintza Berria SL enpresak, legez ezarritako epearen barruan, erabaki hori berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu zuen (abenduaren 22an). Errekurtso horretan eskatu du kautelazko neurri hauek hartzea: batetik, berraztertze-errekurtsoa tramitatu bitartean prozedura etetea, 39/2015 Legearen 117.2 artikuluaren arabera; eta, bestetik, errekurtsoa jarri izanari buruzko idatzohar prebentiboa egitea Jabetzaren Erregistroan.

Errekurtso hori eta etetearen eskaera UTE adjudikaziodunari helarazi zaizkio, eta hark, urtarrilaren 12an, etete horren aurkako idazkia aurkeztu du.

BSK Legal & Fiscal Asociados SLP bufeteari txosten juridikoa eskatu zaio. Udal Idazkaritzak eta udal zerbitzu teknikoek ere txostena egin dute. Txosten horiek espedientean jasota daude, eta akordio honen arrazoitzat balio dute.

Txostenetan adierazten da ez dela bidezkoa eskatutako etetea erabakitzea, 117.2 artikuluan aurreikusitako bi inguruabarretako bat ere ez delako gertatu:

- Ez dira zehaztu edo egiaztatu ez eteteak zer kalte erreparaezin eragin ahal dizkion errekurtsogileari, eta ez da posible ikusten halakorik gertatzea.

ESKUc2f3b9b5-63fd-4e63-8944-59d4bc9c1d1c

ZARAUZKO UDALA

– Kasu honetan gerta litezkeen deuseztasun-arrazoiak ez dira identifikatu, ezta justifikatu ere.

Idatzohar prebentiboaren kautelazko neurriaren eskaerari dagokionez, ez da justifikatzen eta ez dago aurreikusita araudi aplikagarrian.

Gainera, 117.2 artikuluan aipatzen den haztapenari dagokionez, esan behar da agerikoa dela eragiketa eteteak eta horren ondoriozko atzerapenak interes publikoari kalte egingo liokeela: izan ere, alde batetik, etxebizitza libre eta babestuak eraiki eta entregatzeari eragingo lioke 6/2025 Legeak aitortuta duen etxebizitza-larrialdiko testuinguru batean; eta, bestetik, bi ekipamendu publiko eraiki eta entregatzeari ere eragingo lioke: autobus-geltokia, Zarauzko udalerriari eta Urola Kosta eskualde osoari zerbitzua emango diona; eta aparkaleku publikoa, autobus eta tren geltokiari zerbitzua emango diona.

Aurrekoa kontuan izanda, espedientean dagoen dokumentazioa ikusita eta Lurralde Batzordeak aldeko irizpena eman ondoren, Udalbatzarrak gehiengoz honako hau **ERABAKI DU**:

Lehena.- Errekurtsoaren xede den akordioaren betearazpena behin-behinean eteteko eskaera UKATZEA, eta akordioaren eraginkortasun eta betearazpen-indar osoa mantentzea.

Bigarrena.- Era berean, errekurtso administratiboa jarri izanari buruzko erregistroko idatzohar prebentiboa egiteko eskaera UKATZEA.

Eta aztertzeko besterik ezean, batzarburu jaunak hala aginduta, osoko bilkurari amaiera eman diote, arratsaldeko zazpirak eta hamairutan, eta nik, idazkariak, horren guztiaren fede ematen dut.

Izenpetzen duen idazkariak, ordezko gisa, ziurtatzen du Amaia Gorrotxategi Zubizarreta idazkaria bilkuran izan zela eta akta hau hark egindako zirriborroarekin bat datorrela.

ESKUc2f3b9b5-63fd-4e63-8944-59d4bc9c1d1c

ZARAUZKO UDALA

ACTA Nº 01 DE LA SESIÓN EXTRAORDINARIA CELEBRADA POR EL PLENO DE LA CORPORACIÓN EL DÍA 19 DE ENERO DE 2026

En el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial de la Villa de Zarautz y siendo las diecinueve horas del día 19 de enero de 2025, se reúne el Pleno de la Corporación, al objeto de celebrar la sesión extraordinaria previamente convocada para estos día y hora.

Asisten los Sres. Concejales que a continuación se indican:

Presidente D. Xabier Txurruka Fernandez

Concejales
Dª Garbiñe Oiarbide Iruretagoiena
Dª Irune Urbieta Alberdi
D. Jesus Arana Gomez
D. Iban San Martin Hernandez
Dª Leire Arana Olabarrieta
D. Iker Basurko De Miguel
D. Gervasio Gabirondo Fernandez
Dª Estibaliz Agirre Uranga
Dª Naiara Mendivil Ayerza
D. Ion Arozena Eizagirre
Dª Ainara Landa Argote
Dª Ainhize Larramendi Larrarte
D. Mikel Agirre Etxaniz
D. Jesus Goikoetxea Balentziaga
Dª Eider Gurrutxaga Larrañaga
D. Ander Lucas Aranceta
Dª Garazi Olaizola Irureta
Dª Gloria Vazquez Herranz
D. Inaxio Illarramendi Lizarreta

No asiste: Dª Itziar Murua Uria
D. Ander Lucas Aranceta (voto delegado a Dª Garazi Olaizola Irureta)

Secretaria Dª Amaia Gorrotxategi Zubizarreta

Interventora en funciones Dª Itziar Kortabarria Garitano

Abierta la sesión, se inicia el estudio y debate de los asuntos incluidos en el Orden del Día.

ORDEN DEL DIA

ESKUc2f3b9b5-63fd-4e63-8944-59d4bc9c1d1c

ZARAUZKO UDALA

1.- RESOLUCIÓN RELATIVA A LA SOLICITUD DE SUSPENSIÓN CAUTELAR DEL ACUERDO DE 27 DE NOVIEMBRE DE 2025 DE ADJUDICACIÓN DEL CONCURSO PARA LA ENAJENACIÓN POR EL PROCEDIMIENTO ABIERTO DE LAS PARCELAS 1 Y 3 DEL COMPLEJO INMOBILIARIO DEL ÁMBITO OD 17.3 AMILLUBI QUE INTEGRAN EL PATRIMONIO MUNICIPAL DEL SUELO

http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20260119&punto=1

Expediente: 2025IK200019

La Señora Secretaría procede a la lectura del borrador del acuerdo, y a continuación se procede al debate y votación de la propuesta, obteniéndose el siguiente resultado:

Votos afirmativos	12	10 EAJ-PNV, 2 PSE-EE
Votos negativos		
Abstenciones	8	8 EH Bildu

Por tanto, el Pleno del Ayuntamiento, por la indicada mayoría, adopta el siguiente acuerdo:

Resolución relativa a la solicitud de suspensión cautelar del acuerdo de 27 de noviembre de 2025 de adjudicación del concurso para la enajenación por el procedimiento abierto de las parcelas 1 y 3 del complejo inmobiliario del ámbito OD 17.3 AMILLUBI que integran el patrimonio municipal del suelo.

Por acuerdo del Pleno municipal de fecha 27 de noviembre de 2025 se adjudicó el concurso para la enajenación mediante procedimiento abierto de las parcelas 1 y 3 del complejo inmobiliario del ámbito de ordenación definida OD 17.3 Amillubi, a la oferta presentada por la UTE formada por Viuda de Sainz, S.L., Urbelan empresa constructora S.A.U. y Promociones Leku Eder, S.A.

Dentro del plazo legal concedido, por la empresa Amenabar Etxegintza Berria, S.L. se ha presentado con fecha 22 de diciembre recurso de reposición frente a dicho acuerdo. En dicho recurso solicita la adopción de la medida cautelar de suspensión del procedimiento durante la tramitación del recurso de reposición, de acuerdo al artículo 117.2 de la ley 39/2015. También solicita como medida cautelar la anotación preventiva en el Registro de la Propiedad sobre la finca de la interposición del recurso.

Se ha dado traslado de dicho recurso, así como de la solicitud de suspensión a la UTE adjudicataria, la cual con fecha 12 de enero ha presentado escrito en el que se opone a la suspensión solicitada.

Se ha solicitado informe jurídico al bufete BSK Legal & Fiscal Asociados, S.L.P., y asimismo se ha emitido informe por la Secretaría municipal y los servicios técnicos

ESKUc2f3b9b5-63fd-4e63-8944-59d4bc9c1d1c

municipales. Dichos informes constan en el expediente y sirven de motivación al presente acuerdo.

En los informes se indica que no procede acordar la suspensión solicitada por no producirse ninguna de las dos circunstancias previstas en el citado artículo 117.2:

- No se han concretado ni acreditado los perjuicios irreparables que podría acarrear al recurrente la no suspensión, ni resulta plausible que puedan producirse.
- No se han identificado y menos justificado las causas de nulidad que concurrirían en el presente caso.

Respecto a la solicitud de la medida cautelar de anotación preventiva, ni se justifica ni está prevista en la normativa aplicable.

Además hay que añadir, con respecto a la ponderación a la que alude el artículo 117.2, que es evidente el perjuicio que causaría al interés público la suspensión y el consiguiente retraso de la operación, puesto que afectaría por un lado a la construcción y entrega de las viviendas libres y protegidas, en un contexto de urgencia habitacional, como tiene declarada la ley 6/2025, y por otro lado también afectaría a la construcción y entrega de dos equipamientos públicos: la estación de autobuses que dará servicio no sólo al municipio de Zarautz sino a toda la comarca de Urola Kosta, y el aparcamiento público que a su vez dará servicio tanto a la estación de autobuses como a la de ferrocarril.

Teniendo en cuenta lo anterior, la documentación obrante en el expediente y previo dictamen favorable de la Comisión de Territorio, el Pleno municipal por mayoría **ACUERDA**:

Primero.- DENEGAR la solicitud de suspensión provisional de la ejecución del acto administrativo objeto de recurso de reposición, manteniendo su plena eficacia y ejecutividad.

Segundo.- DENEGAR igualmente la medida cautelar de anotación registral preventiva de la interposición de recurso administrativo.

Y no habiendo más asuntos de que tratar el Sr. Presidente da por finalizada la sesión siendo las diecinueve horas y trece minutos, de lo que yo la Secretaria, doy fe.

El Secretario que suscribe, por sustitución, certifica que la presente acta se ajusta fielmente al borrador redactado por la secretaria D.ª Amaia Gorrotxategi Zubizarreta, quien asistió a la sesión.

EKS | CSV: ESKUc2f3b9b5-63fd-4e63-8944-59d4bc9c1d1c
Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=07910
Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=07910